

ONDORENGO JARDUERA: ANIMALIAK ETA LANDAREAK

HARTZAILEAK: LH I ZIKLOA

DENBORA: 30 min.

HELBURUAK:

- Animalien eta landareen beharrak aztertzea.

EDUKIAK:

- Izaki bizidunen garrantzia.
- Gizaki eta animalien arteko harremana.
- Desagertzearen arazoak.

METODOLOGIA:

Irakasleak azalpena eman ondoren umek lan fitxa bat beteko dute.

GIDOIA: “Animaliak eta landareak” lan fitxa.



LH I. zikloa



ANIMALIAK ETA LANDAREAK

Munduan gu bakarrik ez gara bizi. Animaliak eta landareak behar-beharrezkoak ditugu. Animalia eta landareei esker, hainbat eta hainbat janari, sendagai... lor ditzakegu.

1 - Zuen inguruan bizi diren animalien eta landareen izenak azpimarratu:


Zaldia	Elefantea	Ardia	Tximeleta	Jirafa
Lehoia	Haritza	Arrosa	Olagarroa	Behia
Bisigua	Krabelina	Astoa	Kamamila	Antxoa
Armiarra	Txerria	Balea	Untxia	Erlea



LH I. zikloa

2 - Non aurkitzen ditugu animalia eta landare horiek?

3 - Ezagutzen dituzun animaliek eta landareek zertan laguntzen digute?



4 - Zuhaitz eta landare ezagunenak izendatu:



ONDORENGO JARDUERA: ANIMALIAK ETA LANDAREAK

Gaur egun animaliak eta landareak desagertzen hari dira.

5 - Zergatik gertatzen da hori?

ZER EGIN DEZAKET NIK?

- Sekula ez utzi animaliarik edo landarerik izadian. ✓
- Ez erosi kanpoko espezierik etxeko abere gisa. Halakorik baldin baduzu, zaindu eta ez bertan behera utzi. ✓
- Landare apaingarri gisa, bertako espezieak erabili. ✓
- Bidaiatzen baduzu, ez ekarri izaki bizidunik. Euren jatorrizko tokian hobeto bizi dira, eta ez dute arazorik sortzen. ✓

LH I. zikloa

6 - Zer egin behar da, bertako animalia eta landareak mantentzeko?

